



Isolamendu on batek eta berogailu sistema ondo erabiltzeak, zure gastuaren %40 arte aurrezten lagunduko dizu.

KONTSUMO ZENTZUDUN BATERAKO IDEIAK ...

- **Ipin itzazu, aukera baduzu, kristal bikoitzeko leihoak** edo leiho bikoitzak. Leiho bakunek bikoitzek baino 4 aldiz bero gehiago gal dezakete. Leiho bakunak badauzkazu, eta leihoak aldatzen ez baduzu diru kantitate handia gastatu nahi, **badaude merkeagoak diren** aukerak, adibidez, **xafla isolatzaileak**. Hauek “pegatina klimatizagailu” antzekoak dira eta leihoan bertan itsasten dira. Udan, eguzki izpien %80a murrizten dute, horrela gela gutxiago berotzen da. Neguan, berriz, %13an saihesten dute bero galera. Xafla hauek oso erraz ipintzen dira eta gainera oso merkeak dira, 5-20€ tamainaren arabera.
- **Isolamendua berrikusi.** Etxe bateko berokuntza beharraren %25-30a leihoetatik galtzen da. Horregatik, beharrezkoa da etxebizitzaren isolamendu sistema berrikustea, eta hotza sartzen uzten ez duen sistema dela egiaztatzea.
 - ⇒ IRTENBIDEA: **Zirrikituak estali itzazu; leihotako markoak eta pertsianetako kaxak ondo isolatu. Silikona, masilla edo burletak erabil itzazu kostu baxuko oso neurri onak baitira.**





- **Purga itzazu erradiadoreak gutxienez urtean behin**, barruan gelditzen diren aire burbuilek ez baitute ura pasatzen uzten eta efizientzia murrizten dute. Energiaren %15 arte aurreztu ahal izango duzu galdara eta erradiadoreak ondo mantenduz.



- **Erosotasun temperatura mantendu.** Temperatura gradu bakoitzeko %7ko energia kontsumo igoera dago. Etxean goxo egoteko nahikoa da 19-22°Cko temperatura egunean zehar eta 17-18°Ckoa gauean. Gogoratu, etxean bero egoteak ez duela esan nahi udaran bezala egon behar dugunik, hobe da jertsea jartzea fakturarekin ikaratzea baino. Termostato batekin errazagoa egingo zaigu temperatura eroso mantentzea egunean zehar eta %8-13ko kontsumo murrizketa izatea.



- **Ez berotu hutsik dauden gelak.** Energia kontsumoa ez xahutzeko, erabiltzen ez diren geletako erradiadoreen giltza itxi edo itzali.
- **Erradiadoreak ez estali.** Altzari bat oso gertu jartzea edo arropa hezea gainean jartzea, ez da oso gomendagarria gure berokuntza sistemari ahalik eta probetxu gehien atera nahi badiogu. Kontsumoa eta faktura handiagoak izango lirateke.